



KULTUR ETXEA



LEGAZPIKO
UDALA Kultura Salla

LATXARTEGI ARETOAREN ERABILERA ARAUAK

- 1.- Latxartegi Aretoa erabili ahal izateko dagokion instantzia orria bete beharko da, eguna eta ordua kultura teknikariarekin hitzartu ondoren (Aretoa libre dagoen ala ez ziurtatzeko). Eskaria gutxienez 15 egun aurretik egin beharko da.
- 2.- Eskaria egiten duen talde, elkarte edo erakundea Legazpiko Udaleko Batzorderen bateko partaide bada, ez du dagokion alokairu tasarik ordaindu beharko.
- 3.- Aretoak duen ekipamendua erabili ahal izango da, baina ekitaldia burutzeko beste ezer beharko balitz eskaria egiten duen taldearen ardura izango da.
- 4.- Aretoaren erabileran gertatu daitekeen edozein hondatze, material desagertze, e.a., ekitaldia antolatu duen taldearen erantzukizuna izango da.
- 5.- Ekitaldia burutzeko egin beharreko muntaia, desmuntaia eta material garraioak eskatzaileak egin beharko ditu.
- 6.- Ekitaldia burutu aurretik entsegurik edo egin behar bada, eskarian aurreikusi beharko da eta ekitaldia baino astebete lehenago gutxienez hitzartu beharko dira egun eta orduak kultura teknikariarekin.
- 7.- Aretoaren Larrialdi planaren eta indarrean dauden Segurtasun legeak jarraituz inoiz ezingo da Aretoaren ikusle kapazitatea gainditu (320 pertsona normalean, 300 eszenategia erabat luzatuta dagoenean). Aretoaren eskatzailea izango da arau hau bete dadin beharrezko neurriak hartuko dituen, eta hala egingo ez balitz bere erantzukizuna izango da eta horrek ekar ditzakeen ondorioak bere gain hartuko ditu.
- 8.- Aretoaren erabilera eskaria egin duenaren ardura izango da Aretorako sarrera eta leihatilako ,sarrera salmentarik balego, ilarak behar bezala eta istilurik gabe bideratu daitezten beharrezko neurriak hartzea. Sarrerako atea ekitaldia iragarri den ordua baino 15 minutu lehenago, gutxienez, ireki beharko da.
- 9.- Aretoaren erabilera eskaria egiten duen edozein taldek arau guztiak bete eta errespetatu beharko ditu. Hala egingo ez balitz behar diren neurriak hartuko lirateke, aurrerantzean aretoaren erabilera ukatu ahal izango delarik.

Legazpin, 2009ko otsailaren 19an.